



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko irailaren 23a

99. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, transakzio finantzarioen gaineko zergari eta zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruz Ministroen Kontseiluak 2020ko otsailaren 18an onetsitako lege proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, 2019ko PFEZaren aitorten-proposamenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, COVID-19ak eragindako egoerak adikzioen esparruan izandako eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, COVID-19ak eragindako egoerak Skolae programaren garapenean izandako eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroan osasun eskualde oinarriko guztiak 2. fasera igarotzea justifikatu duten datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroan osasun eskualde oinarriko guztiak 3. fasera igarotzea justifikatu duten datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, zahar-etxeetan hildakoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, enplegu-erregulazioko espediente baten ondorioz lanaldia etenda edo murriztuta izan eta lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren pertsonentzako konpentsazio ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea duten eta lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren langileentzako konpentsazio ekonomikoaren kostuaren parte bat enpresek jartzeko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan Gobernuak itundutako abalen lerroa igotzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan Gobernuak datozen hilabeteetarako adostu duen neurri-sortari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, 5G teknologia eta banda zabala ezartzeari buruzko informazio-kanpaina abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, erregimen frankistarekin zerikusia izandako pertsonak jasotako sari, izendapen, ohorezko titulu eta gainerako goraiamenak berrikusi eta baliogabetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Foru Jauregiko Lehendakarien Aretoan frankismoan zehar eta 1979 baino lehen izendatutako Foru Diputazioko lehendakarien erretratuak egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Garraioaren Eskualdeko Batzordea deitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Mendigorrian D eredu eskaintzeko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, transakzio finantzarioen gaineko zergari eta zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruz Ministroen Kontseiluak 2020ko otsailaren 18an onetsitako lege proiektuei buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, transakzio finantzarioen gaineko zergari eta zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruz Ministroen Kontseiluak 2020ko otsailaren 18an onetsitako lege proiektuei buruzkoa. Galdera 2020ko otsailaren 28ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-20/PES-0036), Parlamentuko erregistroan 1384 irteera-zenbakia duena, transakzio finantzarioen gaineko zergari eta zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak eskatu al du Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen bilera Estatuak informa dezan Transakzio finantzarioen gaineko zergari eta zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruzko Lege Proiektuen edukiaz? Jaso al du erantzunik Estatuaren aldetik bilera hori egiteko?

Martxoaren 24an, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Ogasuneko estatu-idazkariari igorritako idazki batean besteak beste aipatu zion Hitzarmen Ekonomikoaren 6. artikuluan aurreikusitako prozedura abiarazi beharra dagoela, Ministroen Kontseiluak otsailaren 18an onetsitako bi lege proiektuei dagokienez.

COVID-19aren osasun-krisiak eragindako egoera zaila ikusita, auzia uztailetik aitzina lantzeko geroratu zen, bi administrazioen artean jorratu beharreko auzi urgentekoak jorratu eta ebatzi ondoren.

Oraindik ez da horretarako agendarik itxi.

2. Gobernuak uste du bi zerga horiek Nafarroan ezar daitezkeela kontuan hartuta zeharkako zergak direla eta bi kasuetan Estatuak nahi duena dela Estatu lurralde osoan gerta litezkeen zerga-egitateak zergapetzea, aintzat hartu gabe Foru Komunitateak arlo horretan izan ditzakeen eskumenak?

Zeharkako zerga ugari daude Hitzarmen Ekonomikoan jasotzen direnak eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean harmonizatzen direnak; hortaz, ez dugu uste inolako eragozpenik egon daitekeenik a priori zerga berri horiek Hitzarmen Ekonomikoaren baitan adostu daitezzen.

3. Gobernuak uste du Nafarroaren interesetarako hobe dela zerga horiek Nafarroan ezarri beharrean Estatuarekiko negoziazio bat mantentzea, halako moduz non Foru Komunitateak konpentsazio bat jasoko lukeen Estatuak bildutako guztiaren ehuneko bat ordainduta?

Bere foru araubideari esker, Nafarroak bere zerga-araubide berekia mantendu, ezarri eta arautu dezake. Nafarroako Foru Ogasuna denez Nafarroako zerga-sistema aplikatzeko ardura duen erakunde autonomoa, bere helburua da Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoak diren zerga guztiak kudeatzea eta konexio-puntuak eta harmonizazio-mekanismoak ezartzea Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan.

4. Gobernuak uste du ehuneko hori izan ahaliko litzatekeela Nafarroari aplikatzen zaiona, oro

har, Foru Komunitateak bere gain hartu ez dituen Estatuaren zamekiko ekarpena egozteko, hau da, ehuneko 1,60koa?

Hitzarmen Ekonomikoan araututako ekarpen ekonomikoa zehazteko metodologiak zenbait konpentsazio jasotzen ditu, Nafarroak egin beharreko ekarpenetik deskontatu beharrekoak; besteak beste, hitzartu gabeko zergengatik konpentsazioa. Konpentsazio hori egiten da Estatuak ez beste inork biltzen dituen zergengatik; horietan, bosturteko bakoitzerako ezarritako egozpen-indi-

zea aplikatzen heldu den zenbatekoa deskontatzen du Nafarroak ekarpenaren ordainketan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 4an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren ordezkari: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, 2019ko PFEZaren aitorten-proposamenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2019ko PFEZaren aitorten-proposamenei buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok idatziz erantzuteko galdera egin du (10-20/PES-0069), Parlamentuko erregistroan 3480 irteerazentzako duena, jakiteko ea 2019ko PFEZaren aitorten-proposamenak zergatik ez diren postaz bidaliko eta ea nor den erabaki horren erantzulea.

Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

2019ko PFEZaren aitorten-proposamenak zergadunaren esku jarri behar zirenean (apirilaren amaiera aldean) alarma-egoera indarrean zegoelako erabaki zuen Nafarroako Foru Ogasunak horiek postaz ez bidaltzea. Une horretan, Correos-ek gutxienezko zerbitzuak eta ezinbesteko zerbitzuak baizik ez zituen ematen; beraz, ez zegoen bermatuta bidalketa masibo bat (200.000 proposamen baino gehiago) zergadunek behar bezala jasoko zutenik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 4an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren ordezkari: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, COVID-19ak eragindako egoerak adikzioen esparruan izandako eraginari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19ak eragindako egoerak adikzioen esparruan izandako eraginari buruzkoa. Galdera 2020ko ekainaren 12ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera egin du (10-20-PES-00113), zeinean informazioa eskatzen baitu "COVID-19ak eragindako egoerari buruz adikzioen esparruan, zehazki joko patologikoan, online ludopatian edo pantailekin lotutako jarrera eta jokabide mendetasun-sortzaileen kasuan". Honako hau da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Nafarroako Gobernuak ba al dauka daturik, informaziorik edo inolako azterlanik zeinaren bidez ezagutu ahal izanen baita zer eragin izan duen edo izaten ari den COVID-19ak eragindako egoerak adikzioen esparruan, zehazki joko patologikoan, online ludopatian edo pantailekin lotutako jarrera eta jokabide mendetasun-sortzaileen kasuan?

Drogei eta Adikzioei Aurrea Hartzeko III. Planak, aurrekoak egin zuen bezala, alkoholarekin, tabakoarekin eta kalamuarekin lotutako kontsumoak prebenitzeko eta horietan eragiteko ekintzen esparruan, baita substantziarik gabeko adikzioak prebenitzeko ekintzen esparruan ere, adikzioen fenomenoaren "ezagutzaren, prestakuntzaren eta ikerketaren sozializazioa" jasotzen du. NOPLOIrako eta Osasun Komunitarioa Sustatzeko Zerbitzurako, gainera, ikerketa etengabeko ekintza gisa planteatzen da, eta konfinamendu-aldian bi azterlan egin dira herritarren ongizatean eta osasunean eragina duten bizimoduarekin lotutako jokabideetan konfinamenduak izandako eraginari buruz:

1. Nafarroako populazio helduak konfinamenduan izan duen osasun-egoerari buruzko azterlana. 18 urte edo gehiagoko herritarrak.

2. Larrialdietako Adierazlea jasotzea. Drogen ondoriozko "intoxikazioekin" lotutako Nafarroako ospitale-larrialdietako arreta kopurua.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak ere azterlan bat egin du:

Zure iritzia jakin nahi dugu. Zer moduz konfinamendu-egun hauetan? Zertan ematen duzu denbora? 14 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako inkesta.

1. NAFARROAKO POPULAZIO HELDUAK KONFINAMENDUAN IZAN DUEN OSASUN-EGOERARI BURUZKO AZTERLANA

Telefono bidezko elkarrizketa bat zen, 25 galderako galdetegi batean oinarritua, eta funtsezko 3 atal zituen; besteak beste, bizi-estiloak, hala nola elikadura, ariketa fisikoa, alkohol-kontsumoa, tabakoa eta online jokoak.

METODOLOGIAK 18 urtetik gorako biztanleriaren lagin adierazgarri bat jasotzen du, sexuaren, adinaren, Nafarroako zonaldeen eta udallerriaren tamainaren arabera; 1200 pertsona guztira, apirilko aste bakoitzean 300 elkarrizketako 4 multzotan. Telefono bidezko inkesta.

Galdera parlamentarioarekin lotura duen galdetegiko galdera.

P12 Esango zenidake nola izan den konfinamendu egun hauetan, duela hilabete bat baino gehiago, berdin edo gutxiago egin duzun? Itemen artean, hauek daude: tabakoa, alkohola eta online jokoak.

(Online jokoaren definizioa oso zabala da, PC, mugikor edo kotsolen bidez egin daitezkeen apustudun edo apusturik gabeko jokozat har daiteke, eta lagunekin edo bakarka egin daitezkeen bideojokoak ere har ditzake, besteak beste.

Pertsonen % 15ek diote konfinamendu-aldian areagotu egin dutela online jokoaren jokabidea, aurreko hilabetearekin alderatuta; inkestatuen % 63k, ordea, ez du horrelako jokabiderik izan. Bestalde, online jokoari dagokionez, % 20k ez du jarrera aldatu. Horrek esan nahi du inkestatutako biztanle gehienentzat konfinamenduak ez duela ekarri jokabide berri bati ekitea, baizik eta daude-

nak aldatzen lagundu duela, batez ere konfinamenduaren lehen asteetan, eta ez online jokoren bat egiten duten pertsona guztien kasuan.

Online jokoaren gorakada handienak 18 eta 30 urte bitarteko gazteen artean gertatu ziren (horien % 47,4), eta igoera hori egonkor mantendu da apirilean adin-talde horretan.

Alkoholari dagokionez, konfinamenduak beharrezko nabarmena ekarri du oro har, eta beharrezko hori bolada guztietan ikusten da. Bestalde, alkohol gehiago kontsumitu dutela diotenen proportzioa 30-45 urteko gazte helduen, familia-loturarik gabeko familien eta guraso bakarreko familien artean biltzen da.

Tabakoaren kontsumoari dagokionez, inkestak % 7,5ek adierazi du tabako gehiago kontsumitu duela. Igoera hori 30-45 urtekoen taldean kontzentratzen da, eta 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean kontsumoa murrizteko proportzio aipagarriagoak aurki daitezke.

2. LARRIALDIETAKO ADIERAZLEA

Adierazleak substantziek eragindako intoxikazioen ondorioz ospitaleetako larrialdi-zerbituetan emandako arreta jasotzen du. Protokoloa eta hila-bete bakoitzeko larrialdietako asteak ausaz ezartzen ditu Drogei buruzko Plan Nazionalak autonomia-erkidego guztientzat (1987tik abian da, eta Nafarroa 2012an hasi da adierazle hori biltzen).

2019ko apirilko astea eta 2020koa alderatuz gero, larrialdietako arreta nabarmen murriztu dela ikus daiteke: ospitaleetako larrialdi-zerbituetan 25 pertsona artatu ziren 2019ko apirilaren 13tik 19ra bitarteko astean, eta 2020ko apirilaren 15etik 21era bitarteko astean, berriz, 4 pertsona artatu dira guztira.

3. NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUAREN KONFINAMENDUARI BURUZKO AZTERLANA

Azterlan horretan aisiarekin lotutako zenbait jardueraren inguruan galdetu zen, horien maiztasuna handitu egin baita, eta gazte gehienek diote horrelako jarduera gehiago egiten dituztela konfinamenduaren aurretik baino. Filmak edo telesailak ikustea, lagunekin edo senideekin hitz egitea edo txateatzea, musika entzutea eta bideojokoekin jolastea dira jarduera horiek. Gainerako aisialdi-jardueretan, ia eutsi egin zaio konfinamenduaren aurreko jarduera-mailari.

“Ordenagailuarekin, kontsolekin edo mugikorarekin jolastea”: mutilen % 70ek eta nesken % 56,5ek gehiago jokatu dute (% 61,8 bi sexuetan).

4. Konfinamendu-aldian azterlanen eta ikerketen JARRAIPENA egitea

Azkenik, esan behar da konfinamenduaren hasieratik beste erakunde batzuk estatu eta Europa mailan hasitako azterlanen jarraipena egiten ari dela:

Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokiak (DTEB) gune berri bat sortu du bere webgunean, COVID-19aren hasieratik berariazko datuak argitaratzeko. DTEBk egungo egoera ikertzeko metodo mistoen joeren azterketa bultzatu zuen. 18 urte edo gehiagoko biztanleen 10.000 inkesta/erantzun jaso zituen.

Atariko emaitzek iradokitzen dute pandemiaren lehen hiru hilabeteetan Europan oro har behera egin dutela drogen erabilera edo drogen erabilera mota batzuek. Hori azal lezakeen faktoreen artean honako hauek daude: konfinamendurako neurri nazionalak, ingurune sozialetan drogak kontsumitzeko aukerak murriztu dituztenak, eta droga-merkatuak etetea.

Beste azterlan eta informazio batzuk: konfinamenduan zehar egindako inkestak eta/edo ikerketen bilketa jarraitua, osasunari eta ongizateari buruzko ikuspegi zabalagoarekin (argitaratuta edo argitaratzeke).

2. Halakorik ez badauka, ba al du asmorik azterlanik egiteko?

Drogei eta Adikzioei Aurrea Hartzeko III. Planaren printzipioetako bat da gomendioak eta esku-hartzeak ebidentzian eta egindako ikerketen emaitzetan oinarritzea. Gure errealitatea ezagutzeko eta adingabeekin, nerabeekin eta gazteekin lan egiten duten profesionalen beharrei erantzuteko ikerketak. Horien bidez eskuratutako ezagutza berriari esker, substantziadun eta substantziarik gabeko adikzioen prebentzioan aritzen diren profesionalak gaitu ahal izanen dira.

Ildo horretan, 2018. urtean, Drogei eta Adikzioei buruzko Plan Nazionalak nazio-mailan egindako inkestetan laginen kopurua handitzen hasi zen, eta horrek aukera eman zuen, alde batetik, emaitzen estatistika- eta fidagarritasun-indar handiagoa izateko, eta, bestetik, bi urtetik behin⁽¹⁾, gehikuntzen bilakaerari buruzko aldizkako informazioa edukitzeko:

(1) Inkestak bi urtez behin egiten dira, txandaka, eta horrek bidea ematen digu etengabe behatzeko zer bilakaera izan duten substantzien kontsumoek eta IKT/Internet/bideojokoekin erabilerekin.

1. Espainiako Bigarren Hezkuntzako Drogen Erabilerari buruzko Inkestak (ESTUDES), 14 eta 18 urte bitarteko biztanleei zuzendutakoak, honako alderdi hauekin lotutako galderak biltzen ditu: a) tabakoaren, alkoholaren, kalamuaren eta beste substantzia batzuen kontsumoak; tabakoaren

kasuan kontsumitzeko modu berriak (zigarro elektronikokoak) eta b) IKTen erabilera/abusua, diruarekin egindako jokoaren prebalentzia (online eta aurrez aurrekoa), bideojokoen-eSporten eta Interneten prebalentzia (edukiak).

1. taula ESTUDES lagina handituz/handitu gabe dagoen aldea, 2018. urtea

Lagina...	Handitu gabe	Handituta	Guztira
			2040
Elkarrizketak	680 (% 3,8ko akatsa)	1360	(% 2,1eko akatsa)
Puntuazioa	17	34	51

2. Alkoholari eta beste droga batzuei buruzko Espainiako Inkesta (EDADES), 15 eta 64 urte bitartekoei egina. Honako hauek detektatzeko aukera ematen du: joko problematikoa, online eta aurrez aurreko diruarekin egindako jokoaren prebalentziak, kalamu-kontsumoaren kontsumitzaile problematikoen profila, Interneten erabilera konpultsiboa.

2. taula EDADES NAFARROA lagina handituz/handitu gabe dagoen aldea, 2019. urtea

Lagina	Handituta	Zabalpenik gabe	Guztira
Elkarrizketak	610	390	1000 (% 3,2ko akatsa)
Puntuazioa	61	39	100

Larrialdietako adierazlea. Adierazle hori 2012. urteaz geroztik jasotzen da, eta horri esker, Nafarroako ospitaleetako arreten bilakaera urteka eta hilabetea alderatu daiteke. Hainbat urtetako konparazioa ikusita, egiaztatu ahal izango ditugu konfinamenduaren hilabeteek intoxikazioetan duten eragina eta zerbitzu horiek ematen duten arreta.

Ez dago Nafarroan azterketa berririk egiteko asmorik; izan ere, martxan daudenek aukera ematen dute pandemiarekin lotutako egoerak etengabe zaintzeko eta aipatutako kontsumoetan eragiteko.

3. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Drogei eta Adikzioei Aurrea Hartzeko III. Plana (2018-2023) gaurko egoerara egokitzeko eta konfinamenduak nahiz tarte fisikoa gorde beharrak, bai eta pantailen erabilera areagotzekoak ere, esparru horri dagokionez dakartzaten arrisku gehigarriak baloratzen?

Drogei eta Adikzioei aurrea Hartzeko III. Planak garatzen jarraituko diren lehentasunezko jarduera-ildoan artean honako hauek jasotzen ditu, zeinak, beharrezkoa bada, indartu egingen baitira:

1. Prestakuntza: 2017. urteaz geroztik, hainbat prestakuntza-ekintza egin dira osasun-arloko profesionalentzat, gizarte-zerbitzuentzat eta gazteriarentzat, joko patologikoaren prebentzioari eta pantailen abusuaren prebentzioari buruz, hainbat gizarte-erakunderekin lankidetzan.

2. Pantailen erabilerari buruzko informazioa: 2019an diseinua egin zen eta orduz geroztik "haurtzaroan eta nerabezaroan pantailen erabilera segurua eta osasungarria sustatzeko dekalogo" banatu izan da.

3. Ikerkuntza: ESTUDES, EDADES, Gazteriari eta Osasunari buruzko Nafarroako Inkesta eta Larrialdietako Adierazlea, zeinak III. Planaren agendan jada agertzen baitira.

4. Droga-mendekotasunen eta gizarte-erakundeen udal-programei laguntzea. Diru-laguntzen lerroen bidez, substantziadun eta substantziarik gabeko adikzioak prebenitzeko ekintzak finantzatzen dira. IKTen ludopatia eta gehiegizko erabilera aurreikusten duten gizarte-erakundeei zuzendutako diru-laguntzen linearekin finantzatutako ekintzek gora egin dute azken urteetan.

5. taula Substantziadun eta substantziarik gabeko adikzioak prebenitzeko jardueretarako gizarte entitateentzako laguntzen bilakaera (€)

	2016	2017	2018	2019	2020
Gizarte entitateentzako laguntzak	185.000	235.000	235.000	318.000*	343.000**

*Dirulaguntza izendun bat barne

**Bi dirulaguntza izendun barne

4. Hala baldin bada, zer lan-ildo edo neurri zehatz ari zarete aztertzen?

Garatu beharreko ildo berrien artean III. Planen jasotakoak daude, egoera berrirako egokiak direnak eta, behar izanez gero, areagotu eginen direnak:

1. Planaren komunikazio-gaitasuna garatzea, teknologia berriak txertatuz (plana egiteko prozesu parte-hartzailean eskatzen dena).

Hainbat gairi buruzko urteko kanpaina nagusiak, hala nola hasita daudenak eta indartzen jarraitzen direnak, online bitartekoak erabiliz: alkohola, kalamua eta beste berri batzuk; esate baterako, substantziarik gabeko adikzioak edo tabakoa —kontsumitzeko modu berriak— (III. Planaren 33 art.)

www.saludjovennavarra.es/eu web-orria, Nafarroako Gazteriaren Institutuak eta Osasuna Sustatzeko Atalak egina, ongizate emozionalari, drogei eta jokoari eta sexualitateari buruzko berriazko edukiak dituena.

2. NUPeko ikerketa-zerbitzuekin harremanetarako guneak sortzea, ezagutza berria sortzea eta aplikazio praktikoa egitea (III. Planaren 34. or.).

3. Planeko Haurrak eta Nerabeak izeneko 6.2.1 lineak pantailen erabileraren inguruko kezka jasotzen du (III. Planaren 37. or.)

Hezkuntzaren arloan, kontuan hartuta curriculum-tratamenduak eskatzen dituela hezkuntza- etapa desberdinetarako (haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza) eta taldearen egoeretarako egokiak diren eduki espezifikoak eta ikasleei, zeharka, bizimodu eta portaera seguru eta osasungarriak babesteko beharrezkoak diren baliabideak eta gaitasunak garatzen saiatzea, Hezkuntza Departamentuarekin batera gida bat egitea aurreikusten da, zeinak lagunduko baitu Osasunerako Hezkuntzako eta Adikzioen Prebentzioko hezkuntza-prozesu formalean, derrigorrezko hezkuntzako curriculum-etapa guztietan.

Azkenik, gogorarazi behar da Droga-mendekotasunak eta Adikzioak Prebenitzeko III. Planak koordinazioari eta lankidetzari eusten diela, aipatutako egiturekin ez ezik, gai honetan inplikaturik dauden Nafarroako Gobernuaren beste egitura batzuekin ere, bereziki Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendariordearekin eta Barne Zuzendaritza Nagusiarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko uztailaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, COVID-19ak eragindako egoerak Skolae programaren garapean izandako eraginari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19ak eragindako egoerak Skolae programaren garapean izandako eraginari buruzkoa. Galdera 2020ko ekainaren 12ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako Bakartxo Ruiz Jaso andreak eginiko 10-20-PES-00114 zenbakiko galdera idatzia dela-eta, Hezkuntzako kontseilariak honako honen berri ematen du:

1.a Ikasturte honetan 195 ikastetxek (171 ikastetxe publiko eta 24 itunpeko ikastetxe) parte hartu dute Skolae programan.

2019-2020 ikasturtean 84 ikastetxe sartu dira, 66 sare publikokoak eta 18 itunpeko sarekoak.

Hasten diren irakasleak Skolae aurretik hasi ziren ikastetxeetan lanean egon daitezke. Banaka kontrolatzen dugu zenbat pertsona hasten diren. Horrela, 2019-2020 ikasturte honetan 2.073 ira-

kasle hasi dira "Skolae-1" programako 1. ardatza lantzen. Prestakuntza hori nahitaezkoa da. Nabarmentzekoa da 1.115 profesionalak programaren 2, 3 eta 4 ardatzak lantzen amaitu dutela. Prestakuntza indibidualizatua denez, ez daukagu daturik esateko zenbat diren sare publikokoak eta zenbat itunpeko sarekoak.

2.a COVID-19ren egoera denboran bat etorri da ardatzen lineako prestakuntzarekin, bai eta ikastetxeak sustatzen dituzten taldeen lana prestatzearekin ere.

Prestakuntza horren ebaluazioa aberasgarria izan da; izan ere, irakasleek ardatzetako jarduerak eskola-curriculumean txertatu dituzte, eta oso ondo baloratu dituzte.

3.a Datorren ikasturterako 219 ikastetxek hezkidetzaren ikuspegitik lan egingo dute. Ikastetxeei jarraipena egiteko eta laguntza emateko, ikastetxe-sareak sortzea planteatzen da, esperientziak eta curriculum-planteamenduak trukatzeko eta jarduerak testuinguru eta egoera desberdinetara egokitzeko, besteak beste, hurrengo ikasturtean agertoki gisa egon daitezkeen esparruetara.

Iruñean, 2020ko uztailaren 3an.

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Nafarroan osasun eskualde oinarrizko guztiak 2. fasera igarotzea justifikatu duten datuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan osasun eskualde oinarrizko guztiak 2. fasera igarotzea justifikatu duten datuei buruzkoa. Galdera 2020ko ekainaren 16ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-20-PES-00115), jakin nahi baitu “zeintzuk diren oinarrizko osasun eskualdeen arabera, 2. fasera igarotzea justifikatu duten datu epidemiologikoak”. Hona horri buruz helarazi beharreko informazioa:

2. fasera igarotzeari buruzko datu epidemiologikoak erantsi ditut, bere garaian informalki bidali ziren bezala, bai eta fasea igarotzea justifikatu zuten beste datu erlazionatu batzuk ere.

Nolanahi ere, Nafarroako Foru Komunitateak, bere lehen txostenean, deseskalatze-prozesuari lurralde-unitate txikiagoen arabera heltzeko aukera planteatu bazuen ere, azkenean prozesu horretatik guztitik igaro da, Osasun Ministerioako talde teknikoekin batera, probintzia bera hartuz erreferentziatzko unitatetzat, kasu honetan autonomiarekin bat datorren unitatea. Beraz, Osasun Ministerioak fase-aldaketa guztietan, 0 fasetik 1. fasera bitartean hasita, egin duen balorazioak Nafarroa osoko informazio epidemiologikoa eta beste aldagai batzuk –hala nola erantzuteko gaitasuna, mugikortasuna eta abar– hartu ditu erreferentziatzat, erantsitako txostenean egiazta daitekeen bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko uztailaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

Galdera, Nafarroan osasun eskualde oinarrizko guztiak 3. fasera igarotzea justifikatu duten datuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan osasun eskualde oinarrizko guztiak 3. fasera igarotzea justifikatu duten datuei buruzkoa. Galdera 2020ko ekainaren 16ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-20-PES-00116), jakin nahi baitu “zeintzuk diren oinarrizko osasun eskualdeen arabera, 3. fasera igarotzea justifikatu duten datu epidemiologikoak”. Hona horri buruz helarazi beharreko informazioa:

3. fasera igarotzeari buruzko datu epidemiologikoak erantsi ditut, bere garaian informalki bidali

ziren bezala, bai eta fasea igarotzea justifikatu zuten beste datu erlazionatu batzuk ere.

Nolanahi ere, Nafarroako Foru Komunitateak, bere lehen txostenean, deseskalatze-prozesuari lurralde-unitate txikiagoen arabera heltzeko aukera planteatu bazuen ere, azkenean prozesu horretatik guztitik igaro da, Osasun Ministerioko talde teknikoekin batera, probintzia bera hartuz erreferentziatzko unitatetzat, kasu honetan autonomiarekin bat datorren unitatea. Beraz, Osasun Ministerioak fase-aldaketa guztietan, 0 fasetik 1. fasera bitartean hasita, egin duen balorazioak Nafarroa osoko informazio epidemiologikoa eta

beste aldagai batzuk —hala nola erantzuteko gaitasuna, mugikortasuna eta abar— hartu ditu erreferentziatzat, erantsitako txostenean egiazta daitekeen bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko uztailaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

Galdera, zahar-etxeetan hildakoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zahar-etxeetan hildakoei buruzkoa. Galdera 2020ko ekainaren 16ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko uztailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-20/PES-00117), zeinaren bidez “informazioa eskatzen baitu adinekoen egoitzetan COVID-19a dela-eta izan diren hildakoei buruz”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Pandemiaren lehen unetik, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak

doikuntza- eta berrikuspen-prozesu konplexu bat egin du bai kasuen bai heriotzen segida historikotik, kontuan hartuta, halaber, Ministerioak une bakoitzean planteatutako monitorizazio-lehentasunen aldaketak, CAESekin eta SiVieS sistemarekin kontaktuan. Aipatutako aldaketak testuinguru horri lotuta egon daitezke; izan ere, kasuak berrikusi dira, heriotzaren kausa erabakigarrienak zehazten saiatuz, bai eta PCR faktore konbinatua, antigorputzen testa edo diagnostiko klinikoa ere. Prozesu horrek, bai autonomia-erkidegoek bai Ministerioak jakitera eman dutenez, aldaketak eta berregokitzeak eragin ditu publikoki halakotzat zabaldu diren serie historikotik, hau da, taula erantsi gisa, eta ez historia klinikoen eta jarraipen epidemiologikoaren eremu erreserbatuan gertatzen diren banakako fitxa gisa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko uztailaren 14an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, enplegu-erregulazioko espediente baten ondorioz lanaldia etenda edo murriztuta izan eta lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren pertsonentzako konpentsazio ekonomikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu-erregulazioko espediente baten ondorioz lanaldia etenda edo murriztuta izan eta lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren pertsonentzako konpentsazio ekonomikoari buruzkoa. Galdera 2020ko ekainaren 24ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko uztailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera idatzia egin du (10-20/PES-00118), zeinean balorazio bat nahi baitu ekainaren 16an Elkarrizketa Sozialaren Mahaian lortutako akordioan honako egoera honetan dauden langileentzako konpentsazio-neurriari buruz: enplegu-erregulazioko espediente baten ondorioz lanaldia etenda edo murriztuta daukaten eta enpresak haien soldata % 100ekoa izateraino osatzen ez dien pertsonentzako ordain ekonomikoa, horren ondorioz lanbide arteko gutxieneko soldata jasotzera iristen ez direnean. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Manu Ayerdi Olaiola jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren 2020ko ekainaren 16ko akordio-dokumentuak honako hau jasotzen du: "Aldeek hartzen duten konpromisoa da arlo horretan jarduketa bat ebaluatzea – 2020ko uztailaren 1etik aitzinako eraginez, eta uztailaren 31 baino lehen akordio batera iristeko konpromisoarekin–, zeina horretarako deituko den Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren bilera batean onetsi beharko baita".

Une honetan, bi aldeak aukerak aztertzen ari dira, baina oraindik ez dute akordiorik lortu. Lortzen den akordioaren arabera, hura gauzatzeko

komenigarrienak diren neurriak hartuko ditu Gobernuak. Nafarroako Parlamentuak onetsi behar badu, dagokion ekimena izapidetuko da.

Eskuragarri dagoen informazioari dagokionez, garrantzitsua da azpimarratzea Nafarroako Gobernuak ez duela informazio oso xehatua de facto ERTE batean dauden pertsonen kopuruari buruz, ez eta, beraz, pertsona bakoitzak izan duen egun kopuruari buruz, ezta pertsona bakoitzak jaso duen langabezia-prestazioari buruz ere. Nafarroako Gobernuak, beraz, hainbat egoera balioesten ditu, daukan informazio murriztaren arabera.

Ez da ahaztu behar langabeziagatiko prestazioen kudeaketa Gobernu zentralari dagokiola, ezaguna denez bera baita COVID-19ak sortutako espediente-oldea ahalik eta ondoen kudeatzen ari dena.

Datu hauek lortu ahal izan dira, eta horietatik abiatuta eraikitzen ari dira balizko eszenatokiak:

– Ekainean enplegua etenda zuten pertsonen batez besteko kopurua 25.812 da Sisperen (SEPEren informazio-sistema) arabera, eta 26.577, berriz, Gizarte Segurantzaren arabera.

– Gizarte Segurantzaren arabera, datu hori 17.632 pertsonakoa zen ekainaren 30ean.

– Datu bera erabiliz, uztailaren 14an, 11.665 pertsona zeuden Gizarte Segurantzaren arabera.

– Era berean, jakinarazi digute uztailaren 42.824 pertsona jaso zituztela prestazioak (kobratutakoa aurreko hilabeteei zegokiela ulertuta), eta horietatik 14.830ek LGS baino prestazio txikiagoa jaso zutela.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko uztailaren 24an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Manu Ayerdi Olaiola

Galdera, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea duten eta lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren langileentzako konpentsazio ekonomikoaren kostuaren parte bat enpresek jartzeko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea duten eta lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren langileentzako konpentsazio ekonomikoaren kostuaren parte bat enpresek jartzeko aukerari buruzkoa. Galdera 2020ko ekainaren 24ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko uztailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera idatzia egin du (10-20/PES-00119), zeinean balorazio bat nahi baitu ekainaren 16an Elkarrizketa Sozialaren Mahaian lortutako akordioan jaso-

tako balizko konpentsazio-neurriari buruz, enpresak eginiko ekarpen baten bitartez eginen litzatekeena, honako egoera honetan dauden langileen kasuan: enplegu-erregulazioko espediente baten ondorioz lanaldia etenda edo murriztuta daukaten eta enpresak haien soldata % 100ekoa izateraino osatzen ez dien pertsonentzako ordain ekonomikoa jasotzen dutenak, horren ondorioz lanbide arteko gutxieneko soldata jasotzera iristen ez direnean. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Manu Ayerdi Olaizola jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

Une honetan, alderdiak jardun posibleak aztertzen ari dira, akordio batera iristeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko uztailaren 24an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan Gobernuak itundutako abalen lerroa igotzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan Gobernuak itundutako abalen lerroa igotzeari buruzkoa. Galdera 2020ko ekainaren 24ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko uztailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-20/PES-00121 galdera idatzia egin du, ekainaren 16an Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluan lortutako akordioaren agiriko enpresei likidezia emateko neurrien atalari buruz. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Manu Ayerdi Olaizola jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

“Enpresak babestea. Likidezia sortzea.

(...) Hori dela-eta, likidezia sortzeko neurri hauek proposatzen dira:

-Abalen lineak handitzea, enpresa txiki eta ertainei eta sektore guztiei sarbidea erraztuz eta arrisku-irizpideak leuntzen . (...)

Honako galdera hauei erantzun:

1. Gobernuak, akordioaren sinatzaile gisa, “nor” proposatzen du neurriak har ditzan?

Testuan “proposatzen du” aditza erabiltzea adierazpide bat da, zeina akordio bat hortzeko Kontseiluari aurkeztutako proposamenen dokumentuan geratu baita.

Jakina, Nafarroako Gobernua bera da elkarrekiko berme sozietateekin (Sonagar eta Elkargi) lankidetzak hitzarmenak arautzen dituzten baldintzak erabaki zituena. Hitzarmen horien arabera, COVID-19aren eraginen esparruko abalak ematea artikulatzen ari da. Gobernuak beharrezkotzat jotzen badu hitzarmen horien elementuren bat aldatzea, bi sozietateei proposatu beharko die, eta, hala badagokio, dagokion akordioa lortu.

2. Gobernuak nola ulertzen du “arrisku-irizpideak leuntzen saiatu” esaldia?

Adierazpide horrek agerian utzi nahi du, besterik gabe, COVID-19aren pandemiaren ondorioz diruzaintzako zailtasunak eta tentsioak jasaten dituzten enpresa bideragarriek likidezia-tresnak erraztearen garrantzia/bokazioa.

Bestalde, konpainia batzuk laguntza-tresna batzuetatik kanpo gera daitezke, sektore jakin batekoak izateagatik edo bere garaian hartzekodunen konkurtso bat egin izateagatik, nahiz eta bere

garaian hartutako betebeharrak % 100ean betetzen ari diren.

3. Gobernuaren ustez, arrisku-irizpideak “leuntze” horrek arrisku ekonomiko handiagoa ekar diezaiotke Foru Administrazioari?

Ez nahitaez, likidezia-tentsioak dituzten enpresa bideragarriek buruz ari garen heinean.

Jakina, arrisku ekonomikoa lotuta dago laguntzen diren eragiketen kopuruarekin eta bolumenarekin eta eragiketa bakoitzaren arriskuaren kalitatearekin, baina, aldi berean, enpresa bideragarriek laguntzeko mekanismorik ez izateak berekin ekar dezake aurrera egin ezin izatea, jarduera ekonomikoa, lurraldearentzako enplegua eta administrazioarentzako diru-sarrerak galduz.

4. Arrisku handiagoak hartzeak kostu ekonomikoak handitzea ekar diezake bere garaian. Gobernu arrisku handiago horiek bere gain hartzeko moduan al dago?

Gobernua prest dago, kasuan kasuko prozeduren esparruan, onartutako likidezia-neurriak ezartzeko, COVID-19aren pandemiak eragindako diruzaintzako tentsioak jasaten ari diren enpresa bideragarrien jarduera eta enplegua ahalik eta gehien babesteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko uztailaren 24an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan Gobernuak datozen hilabeteetarako adostu duen neurri-sortari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan Gobernuak datozen hilabeteetarako adostu duen neurri-sortari buruzkoa. Galdera 2020ko ekainaren 24ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko uztailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera egin du (10-20/PES-00122) "Ekonomia eta Gizarte Kontseilua"ri buruz. Hona Nafarroako Gobernuak lehendakariaren erantzuna:

Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan ez zen inongo dokumenturik sinatu. Agian, Elkarrizketa

Sozialaren Kontseiluari buruz ari zara. Hala bada, jakina da Nafarroako Gobernuak Nafarroa Susper-tu Plana onesteko lanean ari dela. Izan ere, Parlamentuak hainbat gomendio egin ditu, ebazpenen bidez.

Nafarroako Gobernuak, maiatzaren seian egindako bilkuran, plan horren oinarri batzuk onetsi zituen, eta bere espazio korporatiboan daude.

Nafarroako Gobernuak kostu horren kalkulua- ren estimazioa igorri zion Nafarroako Parlamen- tuari.

Nafarroako Gobernuak ere, kalkulua- ren zen- batespen horretan, Nafarroako Parlamentuari jakin- arazi zion zer baliabide dituen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Par- lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez..

Iruñean, 2020ko uztailaren 13an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navas- cués

Galdera, 5G teknologia eta banda zabala ezartzeari buruzko informazio- kanpaina abian jartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artiku- luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echeagaray jaunak egindako galdera- ren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 5G tek- nologia eta banda zabala ezartzeari buruzko infor- mazio-kanpaina abian jartzeari buruzkoa. Galdera 2020ko ekainaren 24ko 71. Nafarroako Parlamen- tuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echeagaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, 5G tek- nologia eta banda zabala ezartzeko informazio- kanpaina abian jartzeari buruz (10-20/PES- 00123). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaletako kontseilariaren erantzuna:

COVID-19aren pandemiaren ondorioz, 5G tek- nologia eta banda zabala ezartzeko informazio-

kanpaina oro gelditu egin da berriro abisatu arte. Gainera, aipatutako pandemiak, maila nazionalan, 5G espektroarako askatutako maiztasunen lizentziazioa atzeratzea ekarri du bigarren dibidendu digitalean, eta, azken batean, mundu mailan 5G hedadura moteltzen ari da osasun-larrialdi horren ondorioz.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko uztailaren 17an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Buil García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legeari buruzkoa. Galdera 2020ko uztailaren 3ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak galdera egin du Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legeari buruz (10-20/PES-00127). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapena atzeratzen joan da hainbat arrazoi tarteko. Hasiera batean, Estatuko Administrazio Orokorra —zehazki, Autonomia-erkidegoetako Egin-tzen eta Xedapenen Jarraipenerako Batzordeak— errekurtso bat jarri zuen, eta lege horren 2. eta 12. artikulua direla-eta desadostasunak planteatu zituen. Desadostasun horiek konpontzeko, Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Lankidetzaren Batzordea biltzeko deia egin zen, eta bilera hori atzeratu egin zen hauteskunde-aldiaren ondoren departamentuetan izandako aldatetengatik.

Desadostasunak konpondu ondoren eta konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa aurkezteko aukera alde batera utzita, Eskubide Sozialetako Departamentuaren lehentasuna guraso bakarrek familien akreditazioa kudeatzea izan zen, familia horiek legeak ezartzen dituen onura fiskalak izan zitzaten, ez baitzuten haiek aplikatzeko arau-garapenik behar.

Ondoren, COVIDaren pandemia izan da departamentuko langileen arreta premiazkoagoak diren beste garapen batzuetara bideratu duena.

Une honetan, legean ezarritako laguntzak garatzen dituen foru dekretuaren zirriborroa bidali zaie Gobernuak ukitutako departamentuei, laguntza horiek familia ugariak jasotzen dituztenekin parekatuz. Administrazio-izapide honen amaieran jarriko dira indarrean.

Une honetan, akreditatutako familia gurasobakarrak zerga-arintzeen onura jaso dezakete, bai eta Gizarte Eskubideen Sailak garatutako laguntza ekonomikoena ere: entzumen-protesien ezohiko gastuetarako laguntza, preskripzio optikoak eta ortodontzia, Gizarte Eskubideen sailburuaren 162/2020 Lege Organikoan arautua, eta kontziliazioa bultzatzeko laguntza, 163/2020 Lege Organikoan arautua.

2020ko ekainaren 15ean, 787 ziren familia gurasobakar moduan edo guraso bakarrek egoeran dauden familia moduan akreditatutako familiak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetz.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 5ean

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, erregimen frankistarekin zerikusia izandako pertsonen jasotako sari, izendapen, ohorezko titulu eta gainerako goraipamenak berrikusi eta baliogabetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, erregimen frankistarekin zerikusia izandako pertsonen jasotako sari, izendapen, ohorezko titulu eta gainerako goraipamenak berrikusi eta baliogabetzeari buruzkoa. Galdera 2020ko uztailaren 3ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-20/PES-00129 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Herritarrekiko Harremanetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Memoriaren Institutuak —eta institutu hori sortu aitzin, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak— 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateari buruzko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea bete dadin lan egin du 2015etik.

Zuzendaritza nagusi hori sortu aitzin, 2015eko otsailaren 11n, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen baliorik gabe uztea Nafarroako seme kutun eta semetzako izendatze aldera Nafarroako Diputazioak 1939ko maiatzaren 12an, 1939ko uztailaren 14an, 1969ko maiatzaren 27an eta 1974ko abenduaren 27an hartutako erabakiak. Honi erantsirik doaz Gobernuaren erabakia eta Nafarroako seme kutun eta semetzako izendatutako zerrenda.

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak sinbolo frankistak erretiratzeko programa jarri zuen abian 2016an. Programa horren xedea da erantzun bat ematea oro har Nafarroako gizartearen eta zehazki Nafarroako Gobernuaren honako konbentzimendu honi: Nafarroako udalen prozesu demokratizatzailean

sakondu beharra dago, erregimen frankista goratzen duten erreferentziak kenduta.

Nafarroako Memoriaren Institutuak, sinbolo frankistak kentze aldera 2016an abiarazitako programaren baitan, hiru ikertzaile kontratatu zituen, hiru une ezberdinetan, 2019an, udal esparruan ikerketa proiektu bat gara zezaten.

Nafarroako udalen aktetan izendapen eta sari frankistak aurkitzea zen asmoa. Lehendabiziko txostenak 2.500 biztanletik goitiko herrien errealitatea erakutsi zigun, 1940ko eroldaren arabera. Bigarrenak, 1.500 biztanletik goitiko herriena. Hirugarrena, 500 biztanletik goitiko populazio-guneena.

Behin izendapenak kausituta, horren berri ematen zitzaien kasuan kasuko udalari, udalak erabaki bidez ken zezan delako sinboloa, 33/2013 Foru Legea eta Gobernuaren 2016ko azaroaren 30eko akordioa aplikatuta.

Ikerketa horiei esker, honako hau jakin zen:

1. Francisco Franco 31 herritan zegoen semetzako eta seme kutun izendatuta; ohorezko alkate, berriz, herri batean, eta alkate nagusi, azkenik, beste batean.

2. Luis Valero Bermejo lau herritan zen semetzako eta seme kutuna eta beste herri bateko zilarrezko domina zuen.

3. Jose Luis Arrese herri batean zegoen semetzako eta seme kutun izendatuta, eta ohorezko alkate, berriz, beste herri batean. Gainera, beste herri baten zilarrezko domina zuen.

4. Jose Antonio Elola herri batean zegoen semetzako eta seme kutun izendatuta.

5. Jose Solchaga herri batean zegoen semetzako eta seme kutun izendatuta.

Gainera, 2016an Nafarroako Gobernuak sinbologia frankistaren lehen erolda abian jarri zuenetik, Nafarroako Memoriaren Institutuak, toki entitateekin koordinatuta, Nafarroako espazio publikotik 300 ikur eta ohorezko aipamen frankista baino gehiago kentzea ahalbidetu du. Prozesuak irekita jarraitzen du, eta elementu berriak daudela jakinarazten den heinean, horiek kentzeko beharrezko jarduerak abian jartzen dira, toki entitateei aholkularitza emanez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 4an

Herritarrekiko harremanetako kontseilaria: Ana Olo Hualde

I. ERANSKINA

ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2015eko ____aren __ (e)(a)n hartua. Haren bidez ezeztatzen dira Nafarroako Diputazioak hartutako erabaki hauek: 1939ko maiatzaren 12koa, 1939ko uztailaren 14koa, 1969ko maiatzaren 27koa eta 1974ko abenduaren 27koa. Horiek guztiak Nafarroako herritar kutun edo ohorezkoen izendapenei buruzkoak ziren.

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeak 12. artikuluan honako hau ezartzen du: "Nafarroako administrazio publikoek, foru lege hau argitaratu eta urtebeteko epean, berraztertu eta baliogabetu eginen dituzte erregimen frankistarekin zerikusia izandako pertsonen jasotako sariak, izendapenak, ohorezko tituluak eta gainerako goraipamenak, eta, urtebeteko epe horretan, behar diren zuzemenak eginen dituzte aurreko horiei buruzko ziurtagiriak egiteko. Ziurtagiri horiek publiko eginen dituzte administrazio desberdinek, eta Espainiako Gobernuari igorriko dizkiete".

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak proposatuta, eta lege agindu hori betetzeko, honako hau,

ERABAKI DU:

1. Ezeztatzea Nafarroako Diputazioak hartutako erabaki hauek: 1939ko maiatzaren 12koa, 1939ko uztailaren 14koa, 1946ko irailaren 27koa, 1969ko maiatzaren 27koa eta 1974ko abenduaren 27koa. Horiek guztiak Nafarroako herritar kutun edo ohorezkoen izendapenei buruzkoak ziren.

2. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3. Erabaki hau igortzea Espainiako Gobernuak Justizia Ministerioari eta Defentsa Ministerioari, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Lehendakaritza eta Justizia Zuzendaritza Nagusiari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hamabosteko ____aren __ (e)(a)n.

Nafarroako Gobernuak kontseilari eta idazkaria: F. Javier Morrás Iturmendi

II. ERANSKINA

Nafarroako seme kutun eta semetakoak

Erabakia ezeztatzea

(Seme kutun izendatzen ziren jatorriz nafarrak zirenak, eta semetzako, berriz, nafarrak izan ez arren Nafarroaren irudi ona lortzen lagundu zutenak).

1939ko uztailaren 14ko Erabakia.-

Tomás Domínguez Arévalo Jauna- Rodeznoko kondea.- Nafarroako seme kutuna.

Luis Orgaz Yoldi jauna. Teniente jenerala - Nafarroako semetzakoa.

Federico García Sanchiz jauna.- Nafarroako semetzakoa.

1939ko maiatzaren 12ko Erabakia.-

Jeneral José Solchaga Zala jauna.- Nafarroako seme kutuna.

Jeneral José Iruretagoyena jauna.- Nafarroako seme kutuna.

Jeneral Francisco García Escámez jauna.- Nafarroako semetzakoa.

Jeneral Rafael García Valiño jauna.- Nafarroako semetzakoa.

Jeneral Ricardo Rada Peral jauna.- Nafarroako semetzakoa.

1969ko maiatzaren 27ko Erabakia.-

Luis Arellano Dihinx. Nafarroako seme kutuna.

1974ko abenduaren 27ko Erabakia.-

Estatuburu eta Espainiako kaudillo Francisco Franco Bahamonde jauna.- Nafarroako semetzakoa.

1974ko abenduaren 27an, Francisco Franco Bahamonde "Nafarroako semetzako" izendatu zen Diputazioaren erabaki baten bidez. 1975eko apirilaren 23an, entzunaldi batean, Nafarroako semetzakoaren izendapena biltzen duen pergaminotitulu eman zitzaion, baita Nafarroako domina bat ere, osaera bakarrekoa, eta Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren ale bat.

Galdera, Foru Jauregiko Lehendakarien Aretoan frankismoan zehar eta 1979 baino lehen izendatutako Foru Diputazioko lehendakarien erretratuak egoteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Foru Jauregiko Lehendakarien Aretoan frankismoan zehar eta 1979 baino lehen izendatutako Foru Diputazioko lehendakarien erretratuak egoteari buruzkoa. Galdera 2020ko uztailaren 3ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-20/PES-00130 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak, 2016ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, ikur frankisten errolda onetsi zuen, bai eta ikur horiek kentzeari buruzko gomendioak ere, eta Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren esku utzi zuen hura Nafarroako Gobernuari aurkeztea. Nafarroako Gobernuak, 2016ko azaroaren 30eko erabakiaz, ikur frankisten behin-behineko erroldaren jakinaren gainean zegoela adierazi zuen eta hura berretsi zuen, eta onartu egin zituen ikur horiek kentzeko gomendioak, Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak onetsiak. Era berean, erabaki zen Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusiaren esku uztea berretsitako behin-behineko errolda gaurkوتا edukitzeko behar diren jarduketa eta proposamen guztiak egitea, bai eta jada onetsi diren ikur frankistak kentzeko gomendioak gauzatzea ere. Nafarroako Gobernuaren azaroaren 30eko Erabakia 2017ko urtarrilaren 13ko 9. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Zenbait arrazoi zirela medio, onetsi zen ikur frankisten zentsua irekia eta behin-behinekoa zen. Lehenik eta behin, Nafarroako espazio publikoaren argazki partzial bat (baina garrantzitsua) zen, aldatuz joan dena beste sinbolo batzuk agertu

ahala, beste ikerketa-prozesu berri batzuk egin baitira toki entitateekin lankidetzan. Denborarekin, udalen osoko bilkuren akta-liburuak aztertzeari ekin zitzaion, kolpe militarrean nahiz haren ostean edo diktaduran piztutako errepresioan eta indarkerian parte hartu zuten pertsonak seme kutun izendatzeko akordioak aztertzeke. Izendapen horiek guztiak ere erretiratu dira.

Aurrerabide historiografikoak gorabehera, oraindik ere ez da egin behar bezain zorrotza den ikerketa historikorik, 1936az gero eta erregimen frankistan zehar egin ziren giza eskubideen urraketatzen zenbait pertsonak izandako lankidetzaren eta parte-hartzearen zehaztu ahal izateko modukorik. Oraindik ere arazo ugari dago gertatutakoa zehaztasun eta doitasun handiagoz ezagutu ahal izatea ahalbidetzen ahal duten artxiboak eta dokumentu-funtsak ikusteko. Izan ere, Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu-funtsak presatutako txostenean behin baino gehiagotan adierazten zenez, zenbait kasutan "ikerketa gehiago egin beharko dira, argiago zehaztearren pertsona horietakoren batek zer lotura izan zuen erregimen frankistarekin [...], erabakia ziurtasun handiagoarekin hartzeko".

Sinbolo, idazkun eta aipamen frankisten zentsuak, zeina 2016ko azaroaren 30ean onetsi baitzen, frankismoarekin lotutako pertsonen lotutako izendegi bat jasotzen zuen. Hona zentsuak jasotako zerrenda:

1. FRANCO BAHAMONDE, FRANCISCO.
2. MOLA VIDAL, EMILIO.
3. SANJURJO SACANELL, JOSÉ.
4. PRIMO DE RIVERA, JOSÉ ANTONIO.
5. DOMÍNGUEZ ARÉVALO, TOMÁS (CONDE DE RODEZNO).
6. LUIS ORGAZ Y YOLDI.
7. JOSÉ SOLCHAGA.
8. JOSÉ IRURETAGOYENA.
9. FRANCISCO GARCÍA ESCÁMEZ.
10. RAFAEL GARCÍA VALIÑO.
11. RICARDO RADA.
12. JOSÉ ARELLANO DIHINX.
13. JESÚS CLEMOS.
14. FÉLIX MARSAL.

15. LOS ARCOS FERNÁNDEZ, JOSÉ.
16. SAGARDOY ALLO, MATÍAS.
17. VALERO BERMEJO, LUIS.
18. ARRESE MAGRA, JOSÉ LUIS.
19. ELOLA OLASO IDIACAÍZ, JOSÉ ANTONIO.
20. PASCUAL VISCOR, ÁNGEL MARÍA.
21. RUIZ DE ALDA MIQUELEIZ, JULIO.
22. EUSA RAZQUIN, VÍCTOR.
23. Tuterako Lourdes auzoko kaleen izenak.

Gobernuaren akordio hartan egiten zen gomendioa zen baliogabetu egin zitezen giza eskubideen urraketa-prozesuetan erantzukizunen bat zeukaten pertsonak seme kutun izendatzeko akordioak, zein ere den hori bultzatu duen erakundea (tokikoa nahiz probintziakoa).

Aurrena Batzorde teknikoak eta hurrena Nafarroako Gobernuak onetsitako izendegia ikusita, Tomás Domínguez Arévalo (Rodezno Kondea) da bertan ageri den bakarra, informazioa eskatu zen pertsonen artean.

Hartara, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak hala proposatuta, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak, eraikina hari atxikirik baitago, ez du paratuko Tomás Domínguez Arévaloren (Rodezno Kondea) koadroa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 193.4. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 7an

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, Garraioaren Eskualdeko Batzordea deitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Garraioaren Eskualdeko Batzordea deitzeari buruzkoa. Galdera 2020ko uztailaren 3ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide eta foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak idatziz erantzuteko 10-20 PES-00131 galdera egin du. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesioko kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

1. Garraioaren Eskualde Komitearen deialdiari dagokionez, uste dugu Garraio Kontseilua aipatu nahi dela. Kasu horretan, argitu behar dut aurreikusita dagoela komitea urteko bigarren seihilekora biltzeko deia egitea.

2. COVID-19ak Nafarroako garraioaren sektorean izan duen eraginaren garrantzia balioesteari dagokionez, jakinarazi nahi dut COVID-19ak eragin handia izan duela errepideko bidaiarien garraioaren sektorean. Alarma egoerak pertsonen zirkulazio askatasuna mugatu izanak bidaiari kopurua izugarri murriztea eragin du. Ongi dakizunez, Espainiako Gobernuak onetsitako 463/2020 Errege Dekretuak herritarrei etxetik ateratzeko aukera ematen zien soilik lan egiteko edo funtsezko kudeaketak egiteko; beraz, Nafarroako Gobernuak linea bakoitzeko espedizio-kopurua garraio-behar berrietara egokitu zuen. Gainera, pandemiaren aurka borrokatzeko, eta Osasun eta Garraio Ministerioen zehaztapenekin bat etorriz, bidaiarien artean utzi beharreko tartea handitu zen, eta horrek autobus bakoitzeko plaza-kopurua murriztea ekarri zuen, eta ibilgailuen higiene- eta desinfekzio-neurriak ezarri ziren egunero.

Neurri horien guztien ondorioz, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio erregularren sektoreak galerak izan zituen alarma egoerak iraun zuen bitartean. Nafarroako Gobernuaren kalkuluen arabera 2.024.422 eurokoak izan dira galera horiek.

Hori dela eta, eta garraio-zerbitzu horiek ematen dituzten enpresentzako konpentsazio ekonomiko gisa, Nafarroako Gobernuak foru lege-dekretu bidez onetsi du 2 milioi euro bideratzea errepideko bidaiarien hiriarteko garraioaren sektorean alarma-egoeraren indarraldian izandako defizita konpentsatzeko.

Gainera, Espainiako Gobernuak aurre egin dien enplegu-erregulazioko espedienteen kostua eta ICO laguntzak aipatu nahi ditut.

Bestalde, COVID-19aren inpaktuaren kudeaketari/ikuskapenari dagokionez, ezin da kostu ekonomiko gisa adierazi, baina egia da, ordea, lanbide-gaitasunaren ziurtagiriaren azterketak (apirilaren 24an eta ekainaren 19an) eta lanbidegaikuntzaren ziurtagiriaren azterketa etetea (maiatzaren 9an) ekarri zuela.

Ikuskapenaren esparruan, zaila da kalkulatzea zehapenen ondoriozko diru-sarreraren murrizketan izanen duen eragin ekonomikoa, baina igarotako denboragatik 300.000 euro ingurukoa izan daitekeela kalkulatu da.

Salgaien garraioari dagokionez, Garraioko Zuzendaritza Nagusiak harreman estua izan du aldi horretan salgaien garraioko elkartekin (ANET eta Tradisna). Une honetan, sektoreak zerbitzu-murrizketa bat badu oraindik, zeina % 70ekoa izatera iritsi baitzen martxoaren 30etik apirilaren 5era bitarteko astean, bertan funtsezko zerbitzuez besterik ez baitzen eman. Antzeman den arazo nagusietako bat da salgaiekin kargatutako bidaiak itzultzea lortzea zailagoa dela, eta horrek onurak murriztea eragiten duela.

3. Garraiolariak orain Barne Ministerioarekin egin behar dituzten kudeaketak egiteari utzi izanaren ondorioz Departamentuarentzat zenbatetsi den aurrezpen ekonomikoari dagokionez, jakinarazi nahi dut garraio-baimenen kudeaketa eta arlo horretako zehapen-ahalmena, Estatuaren eskumena bada ere, autonomia-erkidegoei eskumenak eskuordetzan ematearen bidez gauzatzen dela, Estatuaren Ahalmenak Autonomia Erkidegoei eskuordetzeari buruzko Lege Organikoaren bitartez. Zehazki, Nafarroako Foru Komunitatean, garraioen arloan eskumena duen zerbitzuari dagokio, zeina gaur egun, Ikuskapen, Kudeaketa, Garraio Antolaketa eta Mugikortasun Zerbitzua baita.

Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legea (LOTL) aldatzen duen uztailaren 4ko 9/2013 Legearen bidez, izapidetze telematikoaren betebeharra ezarri zen garraio-baimenen esparruan egin beharreko izapide guztietarako. Izapidetze modu hori pixkanaka ezarri da, baina kudeaketa autonomia-erkidegoek egiten jarraitzen dute, aipatutako eskuordetzaren arabera.

Baimenak telematikoki izapidetzeak partikularrek aurkeztu beharreko dokumentazioa sinplifikatzea ekarri du. Hala ere, egin beharreko lanak ez dira murriztu, aldatu baino ez dira egin. Adibide gisa aipatuko ditugu beste erakunde edo erregistro publiko batzuen datuen barne-kontsultak, interesdunen alde aurreko baimenarekin dagokion funtzionarioak egin behar dituenak eta aurkeztu behar ez diren agiriak ordeztu dituztenak, edo

modu iraunkorrean egiten den informazio- eta laguntza-lana.

Azken batean, garraio-baimenen eta zehapen-espeditenteen kudeaketa telematikoak ez dakar garraiolariak zuzeneko izapidetzea egitea Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioarekin, eta espeditente guztiak Ikuskapen, Kudeaketa, Garraio Antolamendu eta Mugikortasun Zerbitzuan ebazten dira; beraz, aldaketa horrek ez dio aurrezpen ekonomikorik ekarri Lurralde Kohesioko Departamentuari.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 3an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, Mendigorrian D eredia eskaintzeko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Mendigorrian D eredia eskaintzeko aukerari buruzkoa. Galdera 2020ko uztailaren 3ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 10-20-PES-00132 galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

– Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi tekniko darabil Mendigorrian D ereduko lerro bat ez irekitzeko?

– Zer prozedura legoke egungo eskola-maparekin bat ez datozen D ereduko lerro berriak irekitzeko?

Arau-erreferentziak:

1.a Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea, euskarari buruzkoa:

III. KAPITULUA: Irakaskuntza eremu mistoan.

“25. artikulua.

1. Euskara irakaskuntzan sartzeari mailaz maila, gero eta gehiago, eta nahikotasunez egiten da, ikastetxeetan eskatzen dutenendako euskarazko irakaskuntza duten ereduak sortuz.

2. Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan euskara irakatsiko zaie nahi duten ikasleei, eskolatzearen bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan dezaten”.

2.a Maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretua, Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskara sartzeari eta erabiltzeari arautzen dituenak:

III. KAPITULUA: Eremu mistoa.

“10. artikulua

1. Nafarroako eremu mistoan, euskarazko irakaskuntza foru dekretu honen 6. artikuluko ereduaren aurreikusitakoari egokituko zaio.

2. Gurasoek edo tutoreek edo, hala badagokio, ikasleek aurkeztutako eskaerak eta ikastetxeko zuzendaritzak bidalitako eskabidea aztertu ondoren, Administrazioak egin beharreko txostenak eskatuko ditu, eta, ikastetxearen baldintzak baloratu ondoren, irakatsi beharreko eredia pixkanaka

ka, progresiboki eta nahikotasunez ezartzeko baimena eman ahal izanen du. "

"Laugarren xedapen gehigarria.

Hezkuntza-administrazio eskudunak zehaztu ahal izanen du zein ikastetxetan emanen den euskararen edo euskarazko irakaskuntza, baldin eta eskaera badago eta dekretu honetako artikuluetan aipatzen diren ikastetxeen ekimena gertatzen ez bada."

3.a Uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duena.

"1. artikulua Ikastetxe publikoen sarearen berrantolamendua.

(...) 3. Eskola departamendua izanen da geografia eta populazio unitate bat, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza administrazioaren mendeko ikastetxeak –irakaskuntza maila guztietakoak– dituen eta ofizialki dauden hizkuntza-eredu guztiak eskaintzen dituen (A, G eta D ereduak eremu mistoan eta A, B eta D ereduak eremu euskaldunean)."

"2. artikulua Ikastetxeak eta hezkuntza ildoak eta unitateak sortu, aldatu, bateratu, kendu, integratu eta atxikitzeko prozesuak.

1. Foru dekretu honen eranskinean zehazten den ikastetxeen sarearen egitura edonola aldatzeko (ikastetxe berriak sortzea, ikastetxeen osasera aldatzea, ikastetxeak bateratzea, hainbat ikastetxe batean integratzea eta ikastetxeen eta hezkuntza ildo eta unitateen atxikipenak aldatzea), horri dagokion administrazio espedientea tramitatu beharko du Nafarroako Gobernuan hezkuntza arloko eskumenak dituen departamentuak.

2. Hezkuntza arloko eskumenak esleiturik dituen departamentuko kontseilariari ahalmena ematen zaio honako hauek jasotzen dituen administrazio espedientea tramitatu eta onesteko: ikastetxeen osasera aldatzea, ikastetxeak bateratzea, ikastetxeen eta hezkuntza ildo eta unitateen atxikipenak aldatzea edo antolaketaren beste edozein alderdi aldatzea; baina ez ikastetxeak sortzeko edo kentzekoa. Izan ere, eskumen hori Nafarroako Gobernuari dagokio, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 17. artikuluan xedatutakoarekin bat."

Foru dekretu horren eranskinean zehazten denez, Mendigorrian bizi diren eta A edo G hizkuntza-ereduan ikasi nahi duten haurrei Mendigorriko "Julián María Espinal Olcoz" Ikastetxe Publikoa dagokie, eta B edo D ereduan ikasi nahi dutenei, berriz, Garesko Eskola Publikoa.

Eskola mapa berriarekin, bermatzen da Nafarroako ikasle guztiek Euskarari buruzko Foru Legean jasotako edozein hizkuntza eredutan ikasteko aukera izatea.

Uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako eskola-mapan edozein aldaketa egitea komenigarritzat jotzen bada, arauzko xedapenak egiteko dagokion administrazio-espedientearen bidez egin beharko da (aurretiazko kontsulta publikoa, entzunaldia eta parte-hartzea, justifikazio-memoriak), eta Hezkuntzako kontseilariaren dagokion foru-agindua onetsiz amaituko da.

2020-2021 ikasturterako, uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretu berria izan da 2019ko abuztuaren 2an (indarrean jartzeko data) ezarrita utzi duena, gutxienez 2020-2021 ikasturteari dagokionez, Mendigorriko udalerriko D ereduko erreferentziazko ikastetxea Garesko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa dela.

– Familiei ez baldin bazaie onartzen aurrematrikula nahi duten ikastetxean aurkeztu ahal izatea, nola justifika liteke egun D eredu eskaintzen ez duen ikastetxe batean seme-alabak matrikulatzea erreklamatzeko duten familien eskaria?

Mendigorriko ikastetxe publikoan D eredu eskaintzen duten familiei aurrematrikulazioak ukatzeak, ikastetxe horretan ez baitago hizkuntza-eredu hori, ez du esan nahi Hezkuntza Departamentuak ez duenik ezagutzen eskaera hori egon badagoela. Familien interesa eta eskaria justifikatu diren kasu zehatz horretaz gain, erregistro ofizial baten aurrean izapidetu den eta Hezkuntza Departamentuari zuzenduta dagoen edozein eskabidek justifika dezake balizko eskaera hori egotea gaur egun D eredu eskaintzen ez duen ikastetxe batean.

– Zertan oinarrituko duzu 2021-2022 ikasturtean D eredu eskaintzeko aukera baloratzen aldera Departamentuak egingen duela diozun txostena?

Hezkuntza Departamentuaren asmoa da, eta hala jakinarazi zaie familiei eta beste foro batzuetan ere azaldu da, indarrean dagoen lehen urte honen ondoren, egungo Eskola Mapa aztertzea, hobetu daitezkeen egoerak konponduko dituzten balizko aldaketak kontuan hartzeko. 2021-2022 ikasturtean D ereduaren eskaintzari buruz egingen den balorazioak kontuan hartuko ditu, besteak beste, eskariaren irizpideak eta ikastetxearen testuingurura egokitutako plangintza efizientearen irizpideak.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 4an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

